

## **Darieta eta Arriberri kale inguruan den arazoaren gaineko mozioa.**

EAJ udal taldeko zinegotzi Martin Ibabe Eceizak, indarrean den Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta Arriberri kale inguruan den arazoaren gaineko MOZIO hau egin nahi dio Juan Karlos Izagirre alkateari, Udalbatzan aztertzeko. Mozioa Gune Publikoetako Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

### JUSTIFIKAZIOA

Orain urte batzuk Arriberri kale inguruan ostalaritza establezimendu bat ireki zutenetik, aldian-aldian arazo batzuk izaten dira, inguruko bizilagunen bizi kalitateari asko erasaten diotenak.

Batzuetan, negozioa hartuta izan duten pertsonak, jarduerak inguruari sortzen zion erasan handia murrizten saiatu dira.

Beste askotan, ordea, arazo ugari sortzeaz aparte —indarrean diren arauak agintzen dutena urratzea dakarten arazoak, horietako asko eta asko—, axola gutxirekin jokatu dute establezimenduaren arduradunek berek arazo horien aurrean.

Hala, kexu asko ailegatu dira gure Udaleko departamentu batetara baino gehiagotara kontu hau dela eta. Eta, orain bertan, jakin dugu 150 sinadura baino gehiago bildu dituztela bizilagunek daukaten egoera salatzeko.

Izan ere, joan deneko aspaldi honetan den egoerak oinarri-oinarrizko gauzak urratzen ditu: elkarbizitza normal bat izatea edota gaez atsedean hartu ahal izatea, esate baterako.



**donostiako udal taldea**

Ijentea, 1 20003 DONOSTIA  
Tel: 943 481 004 - Fax: 943 943 481 703  
pnv@donostia.org



**Donostiako Udala**  
**Ayuntamiento de San Sebastián**

Hau ez da une jakin batean gertatutako gauza bat, baizik eta aspaldiko urteetan gertatzen ari dena, eta, hori dela eta mozio hau aurkeztea iruditu zaigu:

## MOZIOA

.- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio segituan ekiteko hizpide dugun inguru horretan, eta betearazteko bete beharreko arau guztiak: zarataren gainekoa, gizabidearena, gai estupefazianteen kontsumoarena, alkohola kalean edatearena edota ixteko orduena.

Donostian, 2015eko apirilaren 24an.

Izpta.: Martin Ibabe Ezeiza,  
Donostiako EAJ/PNVko zinegotzia.